

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ESKUERNAGAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea zerga ordenantzen aldaketari

Udalbatza honek, 2020ko ekainaren 16an egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasa arautzen duen zerga ordenantza (B epigrafea. Udal igerilekuen zerbitzua) eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantzaren eranskina aldatzeari.

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesa dutenek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Erreklamazioak idatziz egingo dira, eta horretarako hogeita hamar egun baliodun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan erreklamaziorik edo oharrik aurkezten ez bada, ordenantza hori behin betiko onartutzat joko da.

Eskuernaga, 2020ko ekainaren 17a

*Alkatea*

*IÑAKI PÉREZ BERRUECO*